2025eko ABUZTUAREN 20an, ASTEAZKENEZ, KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURAREN AKTA SINTETIKOA

Bertan zirenak: Christian Devèze, auzapeza; Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino axuantak; Corinne Othatceguy, Jean-Jacques Lassus, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Carmen Gonzalez, Jean-Pierre Gogny, François Hayet, Jean-François Lacosta, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Alain Boscq hautetsiak.

Bertaratu ez zirenak edo egon ezin zutenak: Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Sébastien Carre, Joana Lacarra, Peio Etxeleku, Argitxu Hiriart-Urruty, Jean-Paul Alaman eta Xabier Heguy hautetsiak.

Ahalordez: Jean-Paul Eyherachar jaunak Jean-Noël Magis jaunari, Isabelle Ayerbe andereak Christiane Hargain-Despéries andereari, Sébastien Carre jaunak Christian Devèze jaunari, Joana Lacarra andereak Corinne Othatceguy andereari, Peio Etxeleku jaunak Marie Aristizabal andereari, Argitxu Hiriart-Urruty andereak Nathalie Aïçaguerre andereari, Jean-Paul Alaman jaunak Jean-François Lacosta jaunari, Xabier Heguy jaunak Alain Boscq jaunari.

- Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Bertaratutakoek **aho batez**, Amaia Beyrie hautatu dute bilkurako idazkari.

Hautetsi kopurua..... 29
Parte hartu duten hautetsien kopurua..... 21
Ahalordezko kopurua..... 8
Falta zirenen kopurua..... 8

– Gai-ordena:

001 – 2025eko martxoaren 5 eta 20ko eta apirilaren 9ko Herriko Kontseiluko aktak onartzea 2
002 – Auzapezak Herriko Kontseiluaren ordezkaritzan hartutako erabakien berri ematea. 3
003 – Herriko bideen izendapena..... 5
004 – Kanbo behereko errepide-lurren eskuratzea..... 6
005-A– Albeniz biribilgunea eraikitzea: Enedis hitzarmena banaketa publikoko postua finkatzeko 6
005-B - Albeniz biribilgunea eraikitzea: AV 0141 eta 0142 lursailen sarearen kargurako hitzarmena Enedisen alde..... 7
005-C - Albeniz biribilgunea eraikitzea: AW0040 lursailaren sarearen kargurako hitzarmena Enedisen alde..... 7
006 – Golf du Makila Ekonomia Mistoko Sozietatea: akzioen uztea 8

007 – Euskal Herria Hirigune Elkargoa: Sustengu hitzarmena Energia Aurrezkiaren Ziurtagirien balioztatzeko dispositiboaren barnean 9
008 – Baionako herria: hondarkin prehistorikoen mailegu hitzarmena Baionako Natura Museoarekin 11
009 – Atlantiko-Pirinio Hirigintza Agentzia (APHA): 2025eko lankidetza programarako kontribuzio-hitzarmena 12
010 – Hilerria: Hilobi kontzesioak berreskuratzea: hilobien birsalmenta prezioaren finkatzea 14
011 – Hilerria: Hilobi berrien prezioaren finkatzea. 15
012 – Arnagako sartzeen prezioak 2026 urterako 16
013 - Aterperik gabeko aisialdi zentroak (AGAZ): Hiruko hitzarmena asteazkenetako bazkariaren horniketarako Kanboko herria, Departamendua eta Errobi kolegioaren artean ... 17
014 – AGAZ: Erakaskuntza Katolikoaren Erakunde Kudeatzaileak lokala erabiltzeko eskaintza 18
015 - A – Herri-larreak: herri-larreen errentamenduak berritzea 20
015 - B - Herri-larreak: Herri-larreen alokatze kontratuak berritzea 21
015 - C - Herri-larreak: herri-larreen alokatze kontratuak berritzea 22
016 – Herriko oihana: Lurraren okupatze hitzarmena berritzea..... 23
017 - Hilobi–columbariumak aurrekontu gehigarria: Lehen erabaki aldatzailea..... 24
018 – Langileak: aprendizen harrera moldeak 25
019 – Langileak: jatetxe-txartel esleipena – arau aldaketa 27
020 – HebHes Txakurrak: 2024 urteko jardueren txostenaren aurkezpena 28
021 – Hirigune Elkargoa: 2024 urteko jarduera txostena..... 29
022 – 2026ko martxoko herriko hauteskundeak pasatu arte Marienian eta Usamendian proiektuen eraikuntzaren hasiera baztertzeko mozioa. 30

001 – 2025eko martxoaren 5 eta 20ko eta apirilaren 9ko Herriko Kontseiluko aktak onartzea

DELIBERAZIOA:

2025eko martxoaren 5 eta 20an eta apirilaren 9an egindako bilkuren aktak aurkeztu dituzte, Herriko Kontseiluak onar ditzan.

Herriko Kontseiluak, eztabaidatu eta gero, erabaki du aho batez:

2025eko martxoaren 5 eta 20an eta apirilaren 9an egindako bilkuren aktak ONARTZEA.

EZTABAIDA:

Auzapezak adierazi du Nathalie Aïçaguerren ohar bat eskuratu duela. Eskatzen den aldaketa aurkeztera gomitatzen du.

Nathalie Aïçaguerrek oroitarazi du Medevielle jaunak karriken zenbaketari eta plakak ezartzeari buruz apirilaren 9an errandakoa. Honek, bilkura bat berehala egin behar zela adierazi zuen eta plakak laster manatu eta instalatuko zirela, datarik zehaztu gabe.
Orduan Nathalie Aïçaguerre harritu zela zehazten du, aitzineko bilkura batean plakak uda baino lehen ezarriko zirela iragarri zela uste baitzuen.

Hori egiaztatzeko abenduko akta kontsultatu duela adierazi du eta honako hau irakurri du:
«Nathalie Aïçaguerrek galdetzen du ea noiz jarriko dituzten karriken izenen plakak eta bizilagun batek ezar ote dezakeen bere karrikako zenbakia.
Zerbitzu Teknikoen zuzendariak adierazi du errolda bukatua dela eta 790 zenbaki eta 400 karrika-plaka manatu behar direla. 2025eko urtarrilerako aurreikusia da kontsulta eta instalazioa uda aitzin bukatuko da. Sortu edo aldatzen diren kasuetan lehentasunez ezarriko dira karrika-zenbakiak eta gainerateko egoeretan eskuragarriak izanen dira. »

Aïçaguerrek, bukatzeko, zehaztu du ohar honekin eztabaida hesten duela, zehaztasun hori baino ez zuela eman nahi.

Auzapezak oroitarazi du 2025eko apirilaren 9ko bilkuraren akta Aïçaguerren oharrak kontuan hartuz aldatu dela eta proposatutako aldaketa irakurri du.

002 – Auzapezak Herriko Kontseiluaren ordezkaritzan hartutako erabakien berri ematea.

DELIBERAZIOA:

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, auzapezak Herriko Kontseiluak 2020ko ekainaren 11n eman zion eskuordetza dela-eta hartutako erabakien berri eman du:

• 2025eko martxoaren 8tik 2025eko abuztuaren 2ra hilerrian kontzesioak egiteko eta berrartzeko erabakiak;

• 2025eko martxoaren 31: 2025 urterako herri-etxebizitzen alokairuen berrikuspena;

• 2025eko ekainaren 3a: 2025eko udarako ikuskizunen tarifikazioa;

• 2025eko ekainaren 25a: *Banakarekin* 9 urteko iraupeneko alokatze-kontratua berritzea;

• 2025eko ekainaren 27a: 2025eko ekainaren 30etik aitzina Estatu frantseseko Zerbitzuetan (SGC St-Jean-de-Luz) epe finkorako kontu bat irekitzea, 400.000 €-tako diru-ekarpena eginez, 6 hilabeteko iraupenarekin;

• 2025eko uztailaren 23a: Turismo Bulegoan diru-sartzeen azpisail bat sortu zen "Arnaga txarteldegia" izenarekin;

• 2025eko uztailaren 23an: Herriko Etxean diru-sartzeen azpisail bat sortu zen"Arnaga txarteldegia" izenarekin ;

• 2025eko ekainaren 25a: zelai sintetiko bat sortzeko obra-kontratuen izenpetzea ;

• 2025eko abuztuaren 6a: karriken plakak ekartzeko eta ezartzeko eskaera-orri akordioa. Tratua izenpetzea;

• 2025eko abuztuaren 11: 2025eko abuztuaren 14tik aitzina Estatu frantseseko Zerbitzuetan (SGC St-Jean-de-Luz) epe finkorako kontu bat irekitzea, 523.000 €-tako diru-ekarpena eginez, 6 hilabeteko iraupenarekin.

Herriko Kontseiluak, aho batez:

<u>KONTUTAN HARTZEN DITU</u> auzapezak Kontseiluak eskuordetuta hartutako erabakiak.

<u>EZTABAIDA</u>

Philippe Bacardatzek zelai sintetikoari buruzko MAPA batzordeari buruz galdegin du. Adierazi duenez, lanak uztailean hasiko direla zehazten da deliberazioan eta irailean bukatuko direla. Bezperan, tokitik igarotzean, lubakiak daudela egiaztatu du, baina obrak hasi direnik ez du ikusi.

Auzapezak adierazi du obrak datorren astearen hastapenean hasiko direla, baina bukaera-data ez dela zehaztua. Zerbitzu Teknikoen zuzendariak eta Didier Irastorzak informazio hori baieztatu dezaketela adierazi du.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak baieztatu du lanak eta, bereziki, lur-berdinketa datorren astean hasiko direla, enpresekin bilkura teknikoa egin eta gero.

Philippe Bacardatzek oroitarazi du MAPA batzordean garrantzia eman zitzaiola epeak betetzeari. Lanaren bukaera 2025eko irailerako iragarria dela ohartarazi du eta deliberazioan adierazi bezala hilabete bakar batean bukatzea bideragarria ote den zalantzan ezarri du.

Auzapezak oroitarazi du hastapeneko oharren arabera, lanak irailerako bukatzea aurreikusten zela.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak adierazi du obrak egiteko aurreikusten den ohiko epea hiru hilabetekoa dela.

Philippe Bacardatzek ondorioztatu du, zelaia irailaren bukaeran erabilgarria izanen dela.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zuzenketa egin du eta lanen bukaera urriaren ondarrean aurreikusia dela adierazi du.

Didier Irastorzak berretsi du elkarte erabiltzaileak jakinean direla eta gibelapen horren berri eman dietela.

Auzapezak adierazi du hastapeneko erabakian irailaren bukaera aipatzen zela, baina hemendik aitzina gibelapena kontutan hartzea komeni dela, ziurrenik urriaren bukaerara arte.

Philippe Bacardatzek gehitu du ohar teknikoan behin eta berriz aipatzen zela epeak bete behar zirela eta oroitarazi du lehenago ere batzordean aipatu zela lanak uztailean eta abuztuan egitea zaila izan zitekeela. Obra, azkenean, irailean hasiko dela ohartarazi du.

003 – Herriko bideen izendapena

DELIBERAZIOA:

Auzapezak adierazi du Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-30 artikuluak bide eta tokien izenak ezartzera derrigortzen duela Herriko Kontseilua, zirkulaziorako irekitako bide pribatuak barne.

Neurri honek zerbitzuen segurtasuna (sute eta sorospen-zerbitzuak) eta eraginkortasuna hobetzen laguntzen du (posta, sare-hornitzaileak, banaketak, pertsonentzako zerbitzuak).

Testu horren arabera Herriko Etxeak, bideen izendapenari, etxeen eta beste eraikuntzen zenbakitzeari buruzko datuak eskuragarri ezarriko ditu. Publikoaren eta Administrazioaren arteko Harremanen Kodearen L.321-4 artikuluan erreferentzia-datuak eskuratzeko arauan aurreikusia den bezala.

2023ko abenduaren 12an Herriko Kontseiluak eman zuen erabakia ikusirik,

Bide hauek izendatu behar dira:

1) Ursuya etorbidean hasi eta Kurutxetako bidean bukatzen den bidea (landa-bidea):
Izen-proposamena: « Chemin de Gixoenea – Gixoeneako bidea »

2) Beloseako bidearen bidegurutzean hasi eta AZ 229 zk-ko katastroko partzela pribatu batean bukatzen den bidea (bide pribatua):
Izen-proposamena: « impasse Lagunak – Lagunak Karrika itsua »

Herriko Kontseiluak, mapa kontsultatu eta auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta gero, aho batez:

BALIOZKOTU ditu izen hauek:

1) « Chemin de Gixoenea – Gixoeneako bidea »: Ursuya etorbidean hasi eta Kurutxetako bidean bukatzen den bidea (landa-bidea)

2) « Impasse Lagunak – Lagunak Karrika itsua »: Belosea bidearen bidegurutzean hasi eta AZ 229 zk-ko katastroko lurzati pribatu batean bukatzen den bidea (bide pribatua).

ERRATEN DIO auzapezari egin ditzala egin beharreko izapide guztiak eta, bereziki, herriko bideen plana eta sailkapen-koadroa eguneratu ditzala.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari izendapen horrentzat beharrezkoak diren izapide guztiak egiteko (plaken erosketa eta instalazioa)

ESKU-HARTZEAK

Amaia Beyrie andereak ohar orokor bat egin du karriken izendapen elebidunari buruz. Izenak frantsesez eta euskaraz adierazten direlarik euskarazko bertsioaren ofizialtasunari buruzko

galdera egin du. Zehaztu du, bertsio hori ofiziala baldin bada, online bilaketetan agertu beharko lukeela Googlen adibidez eta hala ote den jakin nahi du

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak argitu du, Kanbori dagokionez, bideen izendapena elebiduna dela, baina izendapen ofiziala lehena dela, frantsesa. Azken erabakiaren ondotik izenak Estatuko Helbideratze Bankuari helarazi zizkioten, eta hark frantsesezko bertsioa baizik ez du aintzat hartzen.

004 – Kanbo behereko errepide-lurren eskuratzea

DELIBERAZIOA:

Magisek Hirigintzako auzapez-ordeak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Kanboko herriak duela urte batzuk bideetan obrak egin zituela, Kanbo behereko errepidea zabaltzeko horko biztanleen adostasunarekin.

Hala ere, udalak lan horietarako erabili dituen lurrak eskuratu dituela egiaztatzen duten benetako egintza ez dela burutu azaldu du. Herriko Kontseiluari egoera hori erregularizatzea proposatu dio.

Herriko Kontseiluak, auzapeza entzun eta gero aho batez:

ONARTU DU - orain dela urte batzuk egin ziren bideetako lanak erregularizatzea, lan horiek egiteko lurra bereganatuz:

Lursaila	Azalera	Jabea	Prezioa	Bidearen izena
BB n°58	348 m^2	TRINIOL Chrystèle DAGORRET Amaya DAGORRET Lutxi DARTHAYETTE Mirentxu DAGORRET Etienne	Euro sinbolikoa	Kanbo behereko bidea

Jabego publikora eskualdatzea

ARDURA EMATEN DIO auzapezari operazio hau burutzeko beharrezkoak diren urrats guztiak egiteko, bereziki herriko bideen mapa eta sailkapen taula eguneratzeko.

005-A– Albeniz biribilgunea eraikitzea: Enedis hitzarmena banaketa publikoko postua finkatzeko

DELIBERAZIOA:

Magisek Hirigintzako auzapez-ordeak azaldu du:

Albeniz plazaren inguruan biribilgunea egokitzeko proiektuaren kari, transformazio-postu bat ezartzeko behar den lurzorua lortzeko hitzarmena beharrezkoa dela.

Proiektu horretan, aparkalekuaren puntan den transformadorea berritzea eta lekuz aldatzea aurreikusten da, baita aireko sareko bi zutoin kentzea ere.

Herriko Kontseiluak, Magisen azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, adierazitako bozken gehiengoz

BAIMENA EMAN DIO auzapezari Enedis enpresaren alde eta banaketa publikoko postu bat instalatzeko eskubide errealak emanen dizkion hitzarmena izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala. Baita erabaki hau betetzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko ere.

Kontrako bozkak: Nathalie Aïçaguerre eta Argitxu Hiriart-Urruty.
Abstenitu da: Amaia Beyrie.

005-B - Albeniz biribilgunea eraikitzea: AV 0141 eta 0142 lursailen sarearen kargurako hitzarmena Enedisen alde

DELIBERAZIOA:

Magisek hirigintzako auzapez-ordeak azaldu du:

Albeniz plazaren inguruan biribilgunea egokitzeko proiektuaren kari, sarearen zortasun-hitzarmena beharrezkoa dela.

Herriko Kontseiluak, Magisen azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, adierazitako bozken gehiengoz:

BAIMENA EMAN DIO auzapezari Enedis enpresaren alde zortasun-hitzarmena izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala. Baita erabaki hau betetzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko ere.

Kontrako bozkak: Nathalie Aïçaguerre eta Argitxu Hiriart-Urruty.

Abstenitu da: Amaia Beyrie.

005-C - Albeniz biribilgunea eraikitzea: AW0040 lursailaren sarearen kargurako hitzarmena Enedisen alde

DELIBERAZIOA:

Magisek hirigintzako auzapez-ordeak azaldu du:

Albeniz plazaren inguruan biribilgunea egokitzeko proiektuaren kari, sarearen zortasun-hitzarmena beharrezkoa dela.

Proiektuak *REMBT* kutxa baten lekualdaketa dakar, Albeniz kioskoaren horniketarako eta proiektuaren gainerako lanen sare banaketa egiteko. Herriko Kontseiluak, Magisen azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, adierazitako bozken gehiengoz:

BAIMENA EMAN DIO auzapezari Enedis enpresaren alde zortasun-hitzarmena izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala. Baita erabaki hau betetzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko ere.

Kontrako bozkak: Nathalie Aïçaguerre eta Argitxu Hiriart-Urruty.

Abstenitu da: Amaia Beyrie.

006 – Golf du Makila Ekonomia Mistoko Sozietatea: akzioen uztea

DELIBERAZIOA:

Auzapezak azaldu du:

Golf du Makila golfa "*Golf Makila Baiona Bassussarry Pays Basque"* ekonomia mistoko enpresak kudeatzen eta ustiatzen duela, enpresa hori da golfaren lurraren eta bertan eraikitako higiezinen jabea.

Golfa aparteko tokian kokatua da eta leku hori baloratzeko eta zaintzeko Baiona Hiriak (akziodun nagusia), EMAren kapital sozialaren %58 daukanak, bere esku dituen akzio guztiak EMAri uztea erabaki duela.

Hori dela eta, gainerateko lurralde-erakundeek, akziodun minoritarioek, EMAn dituzten akzioak utzi behar dituzte (kapital sozialaren % 6 orotara, 9 herritan). Akziodun pribatu minoritario batzuk ere beren akzio guztiak edo batzuk uztea erabaki dezakete.

Baionako herriak, juridikoki behartua izan gabe, intereseko agerpen deialdi hau zabaldu du, bere akzioak erosteko operadore bat hautatzeko eta golfaren ustiapena berrabiatzeko.

2025eko urtarrilaren 27ko erabakiaren bidez, Baionako Herriko Kontseiluak intereseko manifestazio deialdi hori abiaraztea onartu zuen, baita prozeduraren arautzea eta obra kudeatzeko laguntzaile baten (AMO) zerbitzuak galdegin zituen, EY Kabinetearenak, Baiona Hiriko zerbitzuen laguntza juridiko eta finantzarioa bermatzeko prozedura osoan zehar.

Interes-adierazpenen deialdiaren araudiaren arabera, hautaketa-prozesua hainbat fasetan burutu da.

Hautaketa fasean hautagaien berezko ezaugarriak baloratu dira. Azterketa hori egin eta gero bi pertsona hartu dira prozeduran parte hartzen segitzeko, eta proposamen zehatzak aurkeztu dituzte. Ondotik, entzunaldiak egin ziren hautatutakoen proposamenaren alderdi guztiak eztabaidatzeko (antolaketa, teknika, funtzio, finantza, lege eta/edo administrazio arlokoak).

Entzunaldiaren fasea bukatzean, aukeratutako hautagaiei azken proposamen zehatza bidaltzeko galdegin zitzaien.

Baiona Hiriko zerbitzuek eta obra kudeaketarako laguntzaileek proposamen horiek aztertu dituzte intereseko manifestazio deialdiaren araudian ageri diren analisi irizpideen araberan:

Irizpideak	Neurria
Akzioen erosketa-prezio	% 50
Uztearen finantziazio eta baldintzak	% 30
Ustiapen-proiektuaren kalitatea	% 10
Proiektuaren ingurumen eta gizarte balioa	% 10

Azterketa horren bukaeran, UGolf SAS eta PATRIMONIO & GOLF 3 SAS enpresek osatzen duten taldeak lortu du puntuaziorik onena, batez ere "uztearen finantziazio-modalitateak eta baldintzak", "ustiapen-proiektuaren kalitatea" eta "proiektuaren ingurumen eta gizarte balioari" dagokienez. Aldiz, "akzioen erosketa-prezioaren" irizpideari buruzko puntuazio ber-bera eman zaie hautagaiei.

Azaldutako guztiaren ondorioz, Baionako herriak, 2025eko uztailaren 17an erabaki zuen UGolf SAS eta PATRIMONIO & GOLF 3 SAS enpresek osatzen duten taldea interes-adierazpenaren deialdiaren irabazle izendatzea eta, beraz, bere akzioak elkarte horri saltzeko baimena eman zuen.

Dirudienez, aukera hori bat dator Kanboko herriak proiektu horretan duen ardurarekin, eta auzapezari baimena eman behar zaio Kanboko herriaren partaidetza UGolf SAS eta PATRIMONIO & GOLF 3 SAS enpresek osatzen duten elkarteari uzteko, Baionako herriak egiten duen bezala, eta 686 € akzio bakoitzeko.

Herriko Kontseiluak, auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari UGolf SAS eta PATRIMONIO & GOLF 3 SAS enpresek osatzen duten taldeari herriaren partaidetza (hau da, akzio bat) uzteko. Zenbatekoa: 686 €

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari uzte-kontratua eta ebazpen honi dagokion beste edozein agiri izenpetzeko.

007 – Euskal Herria Hirigune Elkargoa: Sustengu hitzarmena Energia Aurrezkiaren Ziurtagirien balioztatzeko dispositiboaren barnean

DELIBERAZIOA:

Goytino axuantak azaldu du:

2021eko ekainean Euskal Herria Hirigune Elkargoak Lurraldeko Klima Aire Energia Plana (*PCAET*) onartu zuela, baita bere lurralde-proiektua ere. Azken hau klima-aldaketaren erronken aurrean erresilientea eta energia kontsumoak murrizteko konpromiso sendoa duen Euskal Herri baten aldekoa izaki. Hirigune Elkargoak bere kide diren herriei eta bere inguruko egiturei (establezimendu publikoak, sindikatu mistoak, tokiko sozietate publikoak besteak beste) gero eta zerbitzu-eskaintza aberatsagoa eskaintzen die, lurralde osoan koherentea den ikuspegi batez.

Hirigune Elkargoak Energia Aurrezkiaren Ziurtagirien *(CEE)* balioa agerian ezarri nahi du bere lurraldean. Kontutan harturik ziurtagiri hauen 5. aldi nazional frantsesa dela-eta, eta energia-eraginkortasunarekin lotuak diren erronka gero eta handiagoen aitzinean garela (adibidez: eraikin publikoak berritzea)

Energia Aurrezkiaren Ziurtagirien dispositiboa finkatzen duen 2005eko uztailaren 13ko 2005-781 Energia Politikaren Orientabideen Programazioari buruzko legeak lurralde-erakunde, haien elkarte eta establezimendu publikoei energia-eraginkortasuneko lanetarako laguntza eskaintzen die. Ziurtagiriak sortzeko eta eragile "behartuen" (energia-hornitzaileak) aitzinean ziurtagiriak balioesteko aukera ematen die.

Hala ere, dosierren osaketa eta aurkeztea konplexua eta teknikoa dira beti, batez ere arrazoi hauengatik:

-Hautatu daitezkeen operazioen aniztasuna (200 fitxa estandarizatu baino gehiago)
-*CEE*-en Polo Nazionalaren (*PNCEE*) eskakizun zorrotzak.

Gainera, kontrolak ere, gero eta ohikoagoak, garestiak eta antolatzeko zailak dira.

Horregatik Euskal Herria Hirigune Elkargoak, intereseko manifestazio-deialdi bat (*AMI)* zabaldu eta gero, "Certynergie Solution"-ekin bukatzear den elkarlanean oinarrituko da. Horrek dosierren aurkeztea eta kontrolen kudeaketa eginen ditu 5. aldia bukatu arte, 2025eko abenduaren 31ra arte alegia. Elkarlan hori 6. aldian berritu daiteke, Hirigune Elkargoak eta Certynergie-k hala nahi balute.

Testuinguru horretan, Hirigune Elkargoak taldekatze operatibo baten kuadroa proposatzen du. Trantsizio energetikoaren lurralde-estrategian kokatua eta elkarren arteko laguntza eraginkorraren zerbitzura dena, helburu hauekin:
- Lurraldeko herri eta inguruko egiturei Energia Aurrezkiaren Ziurtagirietarako sarbidea erraztea;
- Dosierra horien balioa agerian uzteko Certynergie-k Elkargoari proposatutako tarifa finko eta abantailatsuaz baliatzea;
- Administrazio-izapideak eta nahitaezko kontrolak bermatzea, Certynergie-ren bidez;
- Balorizazio optimizatua eta segurua bermatzea.

Erantsitako hitzarmenean laguntza horren nondik norakoak azaltzen dira, bereziki, alderdi bakoitzaren eginkizunak eta konpromisoak deskribatzen dira.

Elkargoaren laguntza teknikoa, administratiboa eta finantzarioa agente batek egiten du. Azken hau ziurtagirien arduraduna da Trantsizio Energetikorako eta Plangintza Ekologikorako Idazkaritza Nagusian. Laguntza onuradunek kudeaketa-gastuetan parte hartzearen truke proposatzen da, ziurtagirien balorizaziogatik eskuratuko duten zenbatekoaren % 8an finkatzen da ordainketa.

2005eko uztailaren 13ko 2005-781 Legea, energia-politikaren orientabideak ezartzen dituena ikusirik;

2010eko uztailaren 12ko 2010-788 Legea, Ingurumenaren aldeko konpromiso nazional frantsesari buruzkoa ikusirik;

Lurralde Erakundeen Kode Orokorra, bereziki L. 2224-34, L. 5211- 10 eta L. 5216-5 artikuluak ikusirik;

Energia-kodea, bereziki L. 221-1 eta L. 221-7 artikuluak ikusirik;

2010eko abenduaren 29ko 2010-1664 modifikaturiko dekretua, energia aurrezteko ziurtagiriei buruzkoa, ikusirik;

2016ko uztailaren 13ko prefektura agindua, 64-2016-07-13-011 zenbakiduna, Euskal Herriko Hirigune Elkargoa sortu eta haren eskumenak zehazten dituena ikusirik ;

2018ko abenduaren 15eko Kontseilu komunitarioaren eztabaida ikusirik, non 2018ko urtarrilaren 1etik aitzina ingurumena eta bizi eremua babesteko eta balioesteko eskumena egikaritzea erabakitzen den: airearen kutsaduraren kontrako borroka, zaraten eragozpenen kontrako borroka, Euskal Herria Hirigune Elkargoaren lurralde osoan energia-eskaria menderatzeko ekintzei laguntza ematea alegia;

2018ko abenduaren 15eko Kontseilu komunitarioaren eztabaida ikusirik (trantsizio energetiko eta ekologikorako ekarpenei dagokien eskumen fakultatiboa hartzeari buruzkoa);

2021eko ekainaren 19ko Kontseilu komunitarioaren eztabaida ikusirik, Ipar Euskal Herrian Klima Aire Energia Plana onartzen duena;

Hirigune Elkargoaren 2021-2026 Lurralde Proiektua ikusirik, 2022ko uztailaren 9an Kontseilu komunitarioaren eztabaidaren ondorioz onartua, bereziki bere lehen ardatzeko ("Euskal Herri erresiliente baten alde: gure baliabideak zaindu") lehen engaiamenduan ("energia positiboko lurralde bilakatu");

Herriko Kontseiluak, Goytinoren azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez :

ONARTU DITU ondoko hitzarmeneko baldintzak, Euskal Herria Hirigune Elkargoak Kanboko herriari Energia Aurrezki Ziurtagirien balorizaziorako proposatutako laguntzari dagozkionak;

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari dagokion hitzarmena eta horri dagozkion dokumentu guztiak izenpetzeko.

008 – Baionako herria: hondarkin prehistorikoen mailegu hitzarmena Baionako Natura Museoarekin

DELIBERAZIOA:

Barbier jaunak Herriko kontseiluari oroitarazi dio 2025eko irailaren 15etik 2025eko urriaren 31ra Asantza Kultur Gunearen eta mediatekaren artean aldi baterako erakusketa bat eginen dela, "Neandertal Errobi ertzean, mende bateko indusketak Olharen babesean" izenekoa.

Erakusketa horretan zeuden objektuak osatzeko, historiaurreko aztarnen mailegua eskatu diote Baionako Natura Museoari.

Baionako Herriko Kontseiluak aldi baterako erakusketaren kari eta iraunen duen bitartean Historiaurreko 58 aztarna mailegatzea aurreikusten duen hitzarmenaren zirriborroa eztabaidatu eta balioztatu du.

Kolektibitatearen ondasunei egindako kalteen aseguruak Historia eta ondareari dagokionez bereziak diren ondasun horiek estaltzeko aukera ematen du. Orotara 10 850 €-tako balioa dute (hamar mila zortziehun eta berrogeita hamar euro).

Deliberazio honen bidez, auzapezari baimena eman behar zaio erantsia den mailegu-hitzarmena izenpetzeko.

Herriko Kontseiluak, Barbier jaunaren azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari erantsia den mailegu-hitzarmena izenpetzeko.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari beharrezkoak diren izapide guztiak eta dosierra horri dagozkion agiri guztiak izenpetzeko.

009 – Atlantiko-Pirinio Hirigintza Agentzia (APHA): 2025eko lankidetza programarako kontribuzio-hitzarmena

DELIBERAZIOA:

Magisek, hirigintzako axuantak, oroitarazi du Atlantiko-Pirinio Hirigintza Agentzia (APHA), egoitza Baionan duena, 1901 zenbakidun legez elkartea dela. Bere estatutuen arabera lurralde-prospektiba eta herri arteko plangintzak bere jarduera-eremuan dira. Horregatik, bere kideei laguntza ematen die eta antolamendu, garapen eta hirigintza eta plangintza-politiken definizioan aktiboki parte hartzen du. Bere esku-hartze perimetroa Pirinio Atlantikoetatik Landetako hegoalderaino hedatzen da.

Jakinarazi du, 2024 urte bukaeran Kanboko herriak APHArekin bat egitea erabaki zuela eta Agentziari Kanboko erdiguneari buruzko azterketa bat egiteko galdegin diola.

Gaur eta APHAk 2023, 2024 eta 2025 urteetarako zehaztu duen jarduera-programarekin bat etorriz, Kanboko herriak 2040 urterako hiri-garapenaren ikuspegi estrategikoan lagundua izan nahi du. Helburua herri osoarentzat gida-plan bat egitea da, hemendik 20 urtera abian jarri beharreko neurriak zehaztuz eta espazializatuz, proiektuak sinergian izan daitezen.

Misio honen modalitate guztiak erantsia den hitzarmenean zehazten dira.

IKUSIRIK Lurralde Erakundeen Kode Orokorra

KONTUTAN IZANIK 2024ko abenduaren 10ean Kanboko herriak APHArekin bat egin zuela,

KONTUTAN IZANIK Kanbok 2040 urtera begira ikuspegi estrategikoa izatearren APHAren laguntza ukaiteko duen interesa, herri osoarentzat gida-plan bat egitea helburu duena, 20 urteren bitartean abian jarri beharreko neurriak zehaztuz eta espazializatuz, proiektuak sinergian ezarriz,

KONTUTAN IZANIK APHAren giza baliabideak erabiltzeko eguneroko kostu optimizatua 520 €/eguneko dela, APHAren programaren ekarpen hitzarmenean zehaztu bezala eta laguntza horretarako gehienez 50 eguneko epea finkatua dela,

Herriko Kontseiluak, Magisen azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

BAIMENA EMATEN DU APHAk egunero 520 (bostehun eta hogei) euroko esku-hartzea egiteko, gehienez aurreikusiak diren 50 lanegunetan.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari APHAren programaren ekarpen hitzarmena izenpetzeko. Hitzarmen horren modelo bat eranskinetan ageri da.

GAITZEN DU auzapeza gai horretan edozein izapide betetzeko, baita horrekin zerikusia duen edozein agiri izenpetzeko ere.

Abstenitu ziren: Jean-François Lacosta, Peio Etxeleku.

PARTE HARTZEAK

Amaia Beyriek agentzia horrek 2040 urteari begira egiten duen lanari buruzko bi galdera egin ditu:
1. Agentziari bere lana gidatzeko zer orientabide eman zaizkion galdegin du, horri buruzko eztabaidarik ez duela oroitzen erantsi du.
2. Lan horren emaitzak zabaltzeari buruz galdegin du eta jakin nahi du publiko guztiarentzat eskuragarri izanen diren edo udal taldearentzat bakarrik izanen ote diren.

Jean-Noël Magisek Amaia Beyrieren galderei erantzun die: kura ezarriko dela eta Hirigintza Batzordean aurkeztuko dela, orain arte egin den bezala.

Agentziari emandako orientazioei dagokienez, argitu du orain arte ez dutela orientazio zehatzik zehaztu. Dauden proiektu ezberdinak sinergian ezartzeko laguntza ematea da APHAren lanaren helburua. Lan horrek kolektibitate osoari eraginen dio, besteak beste Beaulieu, Kanboko zentro zabaldua (elizaraino) eta, agian, Kanbo beherea, bertan lanak planteatzen baldin badira.

Amaia Beyriek galdegin du zein momentutan, nork eta zein esparrutan zehaztuko diren agentziaren norabideak.

Orientabideak urte bukaeran landuko dituztela zehaztu du Jean-Noël Magisek. Herriko aldizkarian galdetegi bat zabaldu dutela adierazi du, kanboarrek herriaren erdiguneari begira dituzten asmoen berri emateko eta kontsultatzeko.
Kanboarren ekarpenak eta udal taldearen ideiak APHArekin eginen den lanean txertatuko dira. Kudeaketa horrek, besteak beste, Beaulieu eta eliz inguruko sektoreei eraginen die. Helburua informazio guzti hori biltzea da, plana modu adostuan eraikitzeko.

Philippe Bacardatzek nabarmendu du biztanleei helarazitako galdeketak lehen zatiari bakarrik eragiten diola, erdiguneari dagokiona. APHAen lehen misioa bukatu gabea den honetan, beste desmartxa bat abiatzeari buruzko zalantzak ditu. Adierazi du datozen zortzi hilabeteetako hauteskunde egutegia kontuan harturik, bigarren zati bat abiatu aitzin lehena bukatzea hobe litzatekeela.

Jean-Noël Magisek azaldu du bigarren ikerketak lehenarekin lotura zuzena duela. Lehen ikerketan planteatutako galdera batzuk ez dutela zertan hastapeneko sektorean erantzunik aurkitu behar eta horrek justifikatzen duela azterketa beste eremu batzuetara zabaltzea. Aterabideak identifikatzeko eta, agian, orientazioak zuzentzeko. Lehen ikerketa hastapeneko urratsa da eta ez helburua; lehenaren emaitzak osatzera eta aberastera etorriko da bigarrena.

Auzapezak argitu du hastapeneko ikerketak Kanboko erdigunearen bosgarren zatia hartzen zuela kontutan. APHArekin lanean hasi eta berehala ikusi zen aterabide batzuk azterketa horren perimetroa zabaltzea galdegiten zutela. Jean-Noël Magisen oharren ondorioz Azantza eta Fagalde sektoreak ere sartzea erabaki zela, bertan lur-erosketak eginak izan baitziren. Beaulieu-n bezala, azterketa ez dadin herriaren erdigunearen bosgarren zatira bakarrik mugatu.

Jean-Noël Magisek zehaztu du abian den THParen ardura ukanen duen etorkizuneko taldeentzat ere baliagarria izanen dela lan hori. THParen baitan Kanbori buruzko gogoetak eta lanak elikatzeko aukera emanen du. Helburua lan hori fite eta lankidetzan hastea da.

Philippe Bacardatzek galdegin du ikerketaren lehen elementuak agintaldia bukatu aitzin eskuragarriak izanen direnetz eta urte hastapenean Hirigintza Batzordearen bilkura egitea aurreikusita denez.

Jean-Noël Magisek baieztatu du lehen elementuak urte bukaeran eskuragarri izanen direla, aurreikusitako egutegiaren araberan.

Auzapezak azaldu du lehen elementu horiek epe luzerako hausnarketa-ardatzak izanen direla eta gehiago landu beharko direla.

Philippe Bacardatzek galdegin du Kanboko biztanleek galdetegiari buruz erantzun dutenaren emaitza ere jakinaraziko denetz.

Auzapezak baietz erantzun dio.

010 – Hilerria: Hilobi kontzesioak berreskuratzea: hilobien birsalmenta prezioaren finkatzea

DELIBERAZIOA:

Auzapezak kontseiluko partaideei erran die, Herriko kontseiluak 2020ko ekainaren 11an auzapezari eskuordetu nahi zionari buruz eztabaidatu zuenaren araberan, erabaki dela 2025eko ekainaren 13ko erabakiz, hilobi hauen berrartzea:

- 2121 zenbakidun kontzesioa, *sise* C Sekzioa 3. Lerroa 4 zenbakiduna, monumentu bat eta 4 lekuko hilobia
- 2055 zenbakidun kontzesioa, *sise* C Sekzioa 4. Lerroa 2 zenbakiduna, monumentu bat eta 4 lekuko hilobia
- 2264 zenbakidun kontzesioa, *sise* D Sekzioa 1. Lerroa 12 zenbakiduna, monumentu bat eta 4 lekuko hilobia
- 2232 zenbakidun kontzesioa, *sise* D Sekzioa 1. Lerroa 13 zenbakiduna, monumentu bat eta 4 lekuko hilobia
- 2280 zenbakidun kontzesioa, *sise* D Sekzioa 2. Lerroa 11 zenbakiduna, monumentu bat eta 4 lekuko hilobia

Hilobi horiek herrira itzuli dira, baina lehengoratzeko eta birgaitzeko lanak egin behar dira erabilpen berria egin aitzin.

Kontzesioak eta hileta-ekipamenduak berresleitzeari dagokionez, LKKOren L. 2 223-13 artikuluan eta barne ministroaren 1993ko urtarrilaren 28ko 93-28 C zirkularrean arabera, Estatu Kontseiluaren irizpenaren ondotik hartutakoa, herrira itzuli diren hilobi eta monumentuen salmenta-prezioari buruz erabaki behar da.

Irizpide hauek kontutan hartuz:

- 1978 eta 1983ko bitartean 4 lekuko hilobien salmenta prezioa;
- Frankoak eurotan kanbiatzea, inflazioaren eraginez diru-higadura kontutan hartuz;
- Monumentu bat baden ala ez, haren egoera eta balio zenbatetsia;

- Berresleitu aitzin egin beharreko lanen izaera, garrantzia eta kostua (monumentuak lixatzea anonimizatzeko, hilobitik ateratzeko lanak, birgaitzeko lanak, hondarkinak ateratzeko lanak);
- Monumenturik gabeko 4 lekuko hilobien egungo prezioa.

Hileta-ekipamenduen birsalmenta-prezio hauek ezartzea proposatzen da:

- 3.400 € 4 lekuko hilobia eta monumentua, 2121 zenbakidun kontzesioa, *sise* C sekzioko 3. lerroko 4. zenbakiari dagokiona;

- 3.400 € 4 lekuko hilobia eta monumentua, 2055 zenbakidun kontzesioa, *sise* C sekzioko 4. lerroko 2. zenbakiari dagokiona;

- 3.400 € 4 lekuko hilobia eta monumentua, 2264 zenbakidun kontzesioa, *sise* D sekzioko 1. lerroko 12. zenbakiari dagokiona;

- 3.400 € 4 lekuko hilobia eta monumentua, 2232 zenbakidun kontzesioa, *sise* D sekzioko 1. lerroko 13. zenbakiari dagokiona;

- 3.400 € 4 lekuko hilobia eta monumentua, 2280 zenbakidun kontzesioa, *sise* D sekzioko 2. lerroko 11. zenbakiari dagokiona.

Herriko Kontseiluak auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

FINKATU DU herriak berreskuratutako hilobien eta monumentuen birsalmenta-prezioa gorago zehaztu bezala,

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari dosierra horri dagozkion izapide guztiak burutzeko eta agiri guztiak izenpetzeko.

011 – Hilerria: Hilobi berrien prezioaren finkatzea.

DELIBERAZIOA:

Auzapezak Kontseiluko kideei erran die 2 lekuko bi hilobi eta 4 lekuko beste bi eraikitzen ari direla herriko hilerrian.

Herriko Kontseiluak hilobi berri horien salmenta-prezioa finkatzea komeni da etorkizuneko erosleei erantzuteko.

Eraikitze-kostuaren arabera, bakoitzaren salmenta-prezio hauek proposatu dira:

- 2 750 euro 2 lekuko hilobia
- 3 400 euro 4 lekuko hilobia

Herriko Kontseiluak auzapezaren azalpenak entzun eta gero, aho batez:

FINKATU DU hilobi berrien prezioa gorago agertzen den bezala.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari dosierra horri dagozkion izapideak burutzeko eta dokumentu guztiak izenpetzeko.

012 – Arnagako sartzeen prezioak 2026 urterako

DELIBERAZIOA:

Aizpuru anderearen, finantzen axuantaren, proposamenaren haritik eztabaidatu eta gero Herriko Kontseiluak aho batez:

FINKATU DITU 2026ko urtarrilaren 1etik goiti Arnagan sartzeko prezioak:

• Helduak banaka: 10,00 €
• Helduak taldeka, (laguntzailea eta gidaria: doan) 15 pertsonatik gora: 8,00 €
• Kolegioko, lizeoko eta unibertsitateko ikasleak: 4 €
• Eskolarrak eta 7 eta 11 urte arteko haurrak, biak barne: 2,50 €
• Elbarrituak: 4 €, laguntzaileak: 4 €
• Elbarrituak taldeka (laguntzailea eta gidaria: doan): 3,50 €
• Langabetuak: 4 €
• Lehentasunezko prezioa "partaide turistikoak" (*VVF*, *CE*, *Gîte plus* txartela, Bide historikoa, Guneak eta Museoak...) eta irakasleak: 7,50 €
• 7 urtez beherako haurrak: doan
• Familia prezioa: doan 3. seme-alabatik aitzina

• Ikuskizunaren prezioa: 15 €
• Eskola-tailerra: 2,50 €/ikasle
• Bisita gidatua audiofonoarekin (edozein ikusle): + 1 €

• Manifestazio nazional frantsesak edo tokikoak:

• Lorategirako sarbidea: doakoa
• Etxerako sarbidea
Helduak banaka: 4 €
Kolegioko, lizeoko eta unibertsitateko ikasleak: 2,50 €
12 urtez beherakoak: doan

• Lorategietara bisita:

• Prezio osoa: 6,50 €
• Prezio murriztua (Kolegioko, lizeoko eta unibertsitateko ikasleak, langabetuak): 2,50 €
• Eskolarrak eta 7-11 urte arteko haurrak: doan

Beste doakotasun batzuk: Kanboko biztanleak, Kanboko langileak, "*Les amis d'Arnaga*" elkarteko kideak, ICOM (Museoen kontserbatzaileak) edo ICOMOS (Monumentu historikoen kontserbatzaileak) txarteladunak.

Arnagako "erabiltzaileek" egindako itzulketa galderak:

Erreserba-webguneko Salmenten Baldintza Orokorretan ez da sartzeak aldatzea aurreikusten, ez eta dirua itzultzea ere.

Hala ere, salbuespen gisa, dirua itzultzea baimentzen da kasu hauetan:
• Arnagako gunean antolatutako kultur ekitaldiak bertan behera uztea edota gibelatzea;

• Osasun arrazoiak ;
• Erreserba-webguneak ez baldin badu behar bezala funtzionatzen eta erreserba bakar batentzat ordainketa bat baino gehiago egin baldin badira.
Gorago zerrendatuak diren arrazoiengatik egiten diren itzulketa eskaera guztien frogagiriak aurkeztu beharko dira. Beste edozein arrazoi Herriko Etxeak ezeztatuko du, Salmenten Baldintza Orokorren arabera.

PARTE HARTZEAK

Nathalie Aïçaguerrek galdegin du Arnagan audiofonodun bisitak egiteko aukera badenetz. "Banakako heldua audiofonoarekin" tarifarik gabe ageri direla dio eta bisita horiek beti eskaintzen direnetz galdegin du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak argitu du Arnaga museora egiten diren bisitak gidariekin bakarrik egiten direla orain eta ez audiofonoekin. Bisitak talde gidatuekin egiten dira.

Nathalie Aïçaguerrek oroitarazi du duela 30-40 urte, gutxi gorabehera, bisitak audiofonorik gabe egiten zirela, azken horiek erabiltzen hasi eta gero kendu zirela. Nabarmendu du audiofonoen erabilera ez zela egokia izan, haren ustez, Arnagarentzat.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak azaldu du museoaren konfigurazioak ez duela audiofonoarekin bisita librea egiteko aukerarik ematen, Louvre museoan ez bezala (han ibilbidea egituratua eta derrigorrezkoa delako). Beraz, audiogidak ez dira horrelako bisitak egiteko egokiak. Hala ere, oroitarazi du erabili ziren garaian kontserbatzaileak audiogidak interesgarritzat zituela.

013 - Aterperik gabeko aisialdi zentroak (AGAZ): Hiruko hitzarmena asteazkenetako bazkariaren horniketarako Kanboko herria, Departamendua eta Errobi kolegioaren artean

DELIBERAZIOA:

Irastorza axuantak aipatu du:

2005 urtetik gaur arte Pirinio Atlantikoko Departamenduak eskola-jantokien eskuduntza daukala eta Errobi kolegioari, aukeren araberan, "*kanpoko erabiltzaileei"* otorduak banatzeko baimena ematen diola. Kanpoko erabiltzaile horiek kolektibitateak edo kanpoko erakundeak izan daitezke, hiruko hitzarmenen kari.

Kasu horretan da Kanboko AGAZa, asteazkenetan aisialdi gunera etortzen diren haurrek bazkaldu dezaten.
Otordu hori 135 haurrek eta 15 helduk egiten dute.

Urtero hiruko hitzarmena izenpetzen dugu Departamenduarekin eta hitzarmena berritzea beharrezkoa da.

2022ko uztailaren 8ko 02-001 zenbakidun erabakiaren arabera Komisio iraunkorraren eskutik, Departamenduak bere zuzendariari baimena eman dio Kanboko aisialdi gunera doazen haurrei asteazkenetan bazkaria emateko.

2024ko azaroaren 4ko erabakiaren arabera Errobi kolegioko Kontseilu administratiboak bere printzipalari baimena eman dio hitzarmena izenpetzeko, 2025 urtean kanpoko erabiltzaileei otorduak ematekoa alegia.

Departamenduak Kanboko herriari hitzarmena berrestea proposatu dio, gorago aipatu den eta erantsia den bezala.

Herriko Kontseiluak Irastorzaren azalpenak entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO auzapezari erantsia den hitzarmena eta dosierra horri dagozkion dokumentu guztiak izenpetzeko.

014 – AGAZ: Erakaskuntza Katolikoaren Erakunde Kudeatzaileak lokala erabiltzeko eskaintza

Auzapezak adierazi du lokalen erabiltzeko eskaintzari buruzko puntu horrek ez duela eragin ekonomikorik kolektibitatearentzat. Herriko Etxearen, Kanboko Elkarte Sindikalaren, OGEC-aren eta Saint Michel ikastetxearen kontua da. Zehaztu du Elkarte Sindikaleko eta OGECeko ordezkariak, zuzendaritzako kideak, bilkuran presente direla eta eztabaidatu bitartean salatik ateratzea galdegin die.

Jean-Noël Magis eta Corinne Othatceguy salatik atera dira.

DELIBERAZIOA:

Irastorza axuantak azaldu du:

Eskolaldi kanpoko aktibitateentzat, bakantzen garaian, Aterperik Gabeko Aisialdirako Harrerak kanpoko kirol animazioak eskaini nahi dituela. Alta, Kanboko herriak ez du egitura erdi-irekirik, "Curutchague" Eskola Publikoan den aisialdi-zentrotik hurbil. Ez du eguraldiaren gorabeherei egokitzeko aterperik edo ezker paretara joaterik.

Horregatik kolektibitateak, Irakaskuntza Katolikoa Kudeatzeko Erakundeari « O.G.E.C. CAMBO-LES-BAINS – Sainte-Marie Eskola – Saint Michel kolegioa » deritzonari galdegin zion lokalen erabilpena kudeatzea. Besteak beste kudeaketa hori bere lana delako, eskolaldi kanpoko harreraren funtzionamendurako beharrezkoak diren lokalak eskura ezartzea galdegin dio. Berezkoak eta ohizkoak diren formakuntzarako erabiliak ez diren ordu eta garaietan kultur, kirol, gizarte edo gizarte-hezkuntzako jarduerak antolatzeko (Hezkuntzari buruzko Legearen 212-15 artikulua).

Hitzarmen-proposamena eranskinetan da. Proposamenak Saint Michel Garikoitz kolegioaren eremuan dauden lokalen zati bat AGAZ-ak erabiltzeko aukera ematen du:
- Ezker pareta, aterpetzeko (450 m ²)
- Ondoko komunak (30 m²)

- Ezker paretaren aitzineko patioaren zati bat (620 m²);
- Patio horretara heltzeko bideak (400 m ²)-
- Orotara1 500 m²-tako azalera globala

eta hori 2025eko uztailaren 7tik 2025eko abuztuaren 14ra, AGAZ-aren funtzionamendu-denboran udako bakantzetan.

Herriko Kontseiluak, Irastorzaren azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero aho batez:

ONARTZEN DU Saint Michel Garikoitz kolegioak dituen lokalak AGAZ-ek erabiltzeko hitzarmen-proiektua;

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari hitzarmen hori Kanboko Elkarte Sindikalarekin, OGECekin eta Saint-Michel Garikoitz kolegioarekin izenpetzeko, AGAZ-era joaten diren haurren onurarako, eskolaldi kanpoko aktibitateak egiteko, lehen aipatutako eskola-bakantzetan.

PARTE-HARTZEAK

Philippe Bacardatzek bere harridura adierazi du Kanboko herriak eraikin estaliak dituelako (Ezker pareta, tenis zelaiak) eta galdegin du egoera hori aurten gertatzen den, obrak direla-eta, edo urte batzuk iraunen duen.

Didier Irastorzak zehaztu du aurtengo egoera dela, Ezker paretan egiten ari diren obrak direla-eta.

Philippe Bacardatzek adierazi du aurkeztutako hitzarmenak pasatuak diren datak aipatzen dituela.

Auzapezak azaldu du hitzarmen honen aurkezpena kontutan hartutako datak pasatu eta gero egin dela, Astialdi Zentroko parte-hartzaileen kopuruak Kontseiluaren azken bilkura, hau da, apirilaren 9koa eta gero jakin zirelako. Hitzarmenak kontutan hartzen duen erabilpena doakoa dela argitu du eta, beraz, ez duela herriko finantzentzat eraginik izanen.

Jean-François Lacostak galdegin du aurkeztutako hitzarmenean Kanboko Izarraren aldageletako lokal sanitarioak sartzen direnetz.

Auzapezak berretsi du Kanboko Izarraren aldageletako lokal sanitarioak ez direla hitzarmenean sartzen. Zehaztu du, Herriko Etxeak Kanboko Elkarte Sindikalaren presidentearekin eta erabiltzaile nagusiekin lan eginen duela, bereziki St Michel kolegioarekin, aldageletan egin beharreko lanen banaketa adosteko, elkarte jabearen eta herriaren artean.

Nathalie Aïçaguerrek Kanboko Elkarte Sindikalari buruzko argibideak galdegin ditu. Egitura hori ez duela ezagutzen eta azalpen bat nahi duela adierazi du.

Vincent Goytinok argitu du Kanboko Elkarte Sindikala futbol zelaia eta kolegioa barne hartzen dituen lurren jabea dela, Etxehandia izenez ere ezagutzen dena.

Philippe Bacardatzek Kanboko Elkarte Sindikala (ASC) eta ez parrokia, lur osoaren jabe denetz baieztatzeko galdegin du.

Auzapezak adierazi du, parrokiari buruz mintzo baldin bagara ere, Kanboko Elkarte Sindikala parrokiaren parte baldin bada ere juridikoki, nortasun moral bereizia duen elkarte bat dela, hitzarmen honen xede diren ondasun higiezinen jabea dena.

Jean-Noël Magis eta Corinne Othatceguy salara sartu dira.

015 - A – Herri-larreak: herri-larreen errentamenduak berritzea

DELIBERAZIOA:

Othatceguy hautetsiak batzarkideei azaldu die:

Kanboko Herria zortzi lur sailen jabea dela, «herri-larre motakoak», eta baserri-alokairuan ezartzen ditu hemen azaldua den bezala:

Saila	Lekua	Azalera	Onuradunaren izen-abizena
B saila 459 zk.	Harrichurry	9ha 41a 35ca	AROTÇARENA Albert
B saila 0429-1702-1706-145 zk.ak	Hegala	3ha 83a 62ca	CHALDU David
B saila 820 zk.	Mokorra	1ha 04a 27ca	EYHERABURU Michel
B saila 312 zk.	Erresagar	6ha 43a 25ca	MARTINON Philippe
A saila 281 zk.	Ibarboure-ko Borda	1ha 34a 20ca	MONGABOURE Henri
BC saila 193 zk.	Kanbo Beherea	97a 59ca	GASTIGARD Christophe
B saila 0426-0427-0439-0450-0451-1072 zk.ak	Gaxanto borda	3ha 42a 32ca	DARTHAYETTE Mattin
AM saila 058-059-060-061 zk.ak	Elhorri mendia	2ha 44a 62ca	LARRE Alexandre

2016ko urriaren 3ko deliberazioz, Herriko Kontseiluak 2025eko abenduaren 31ko epemugara iristen diren alokatze-kontratu horiek berritzeko baimena eman zuen.

2024ko azaroaren 26ko data duen gutunaren bitartez, Herriko Etxea onuradun bakoitzarengana galdezka joan da. Guztiek baiezko erantzuna eman zuten, egindako alokairua birbideratzeko asmoarekin.

Horregatik alokatze kontratu guztiak berritzea bidezkoa da, ondoko preskripzio hauek kontuan hartuz:

• Aipaturiko lursailen azalera dela-eta, haien alokatzea baserri-alokairuaren estatusaren menpe dago

• 2024ko irailaren 3ko 64-2024-09-03-00001 zenbakidun prefektura aginduaren arabera, lursail horiek horrela sailkatuak dira:
  ▪ Mendialdean: 4. Zona
  ▪ Lurzoruaren kalitatearen eta ustiatzeko aukeren arabera sailkatuak dira kategoriaka; zehazki, 4. kategoria (larreak eta alhapideak)

• Landako eta Itsas Arrantzako Kodearen L 411-11 artikulua eta Frantziako Baserri-alokairu Indize Nazionalaren oinarria aplikatuz, 2025eko uztailaren 23ko agindu ministerialaren bidez, 2025erako 123.06 €-tako zenbatekoa da.

• Urteko baserri alokairua prefeturaren aginduz urtero ezartzen diren gutxienekoen eta gehienekoen artean ezartzen da (4. kategoriarako, « larreak eta alhapideak », gutxienez 50,06 €/ha eta gehienez 74,60 €/ha)

• Baserri-alokairua urtero berrikusiko da, Landaren eta Itsas Arrantzaren Kodearen R 411-9-9 artikuluaren arabera baserri-alokairu Indize Nazionalaren aldakuntzaren proportzioan

Herriko Kontseiluak, Othatceguy anderearen azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2026ko urtarrilaren 1etik goiti aipatutako onuradunekin egin diren alokatze-kontratuak bederatzi urtez berritzea,

FINKATU DU 4. kategoriarako (larreak eta alhapideak) urteko baserri-alokairua prefekturaren aginduan ezarria den gutxieneko zenbatekoan: 50,06 €/ha

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari baserri-alokairuak eta dosierra honi dagozkion izapide guztiak izenpetzeko.

015 - B - Herri-larreak: Herri-larreen alokatze kontratuak berritzea

DELIBERAZIOA:

Othatceguy hautetsiak batzarkideei azaldu die:

Kanboko Herria lursail baten jabea dela eta lursail hori baserri-alokairuan ezarriko duela baldintza hauetan:

Lur sailaren erreferentzia	Edukiera	Mota	Kategoria
BC 0195 zbk	1Ha 03a 90ca	Larreak- pentzeak	02

2016ko urriaren 3ko deliberoz, Herriko Kontseiluak lursail hori 2017ko urtarrilaren 1etik goiti bederatzi urtez alokatzeko baimena eman zuen (epea 2025eko abenduaren 31n bukatzen zen), Michel DAGORRET jaunaren alde.

Michel DAGORRET zendu zen eta haren alargunak, Chrystèle DAGORRET andereak, alokatze-kontratu hori berritzea galdegin zuen, bere onurarako.

Eskuratze hori erregularizatzeko baserri-alokatze bat proposatzea komeni da. Hona hemen alokairu kontratu horren baldintzak:

• Aipaturiko lursailaren azalera dela-eta baserri-alokatze estatusaren menpe dago

• 2024ko irailaren 3ko 64-2024-09-03-00001 zenbakidun prefektura-aginduaren arabera, lursail horien sailkapena hau da:
  ▪ Mendialdean: 4. Zonaldea

▪ Lurzoruaren kalitatearen eta ustiatzeko aukeren arabera finkatzen da bere kategoria, lehen-kategorian (lur osasungarriak, goldagarriak, erdi eguzkitsuak, material arruntekin mekanizagarriak)

• Landaren eta Itsas Arrantzaren Kodearen L 411-11 artikulua eta ezarritako Baserri-alokairu Indize Nazionalaren oinarria aplikatuz, 2025eko uztailaren 23ko agindu ministerialaren bidez, 2025erako 123.06 €-tako zenbatekoa da,

• Urteko baserri-alokairua prefekturako agindu bidez urtero ezarritako gutxienekoen eta gehienekoen artean finkatzen da (lehen kategoriarako "lur osasuntsuak, goldagarriak, erdi eguzkitsuak, material arruntekin mekanizagarriak" gutxieneko zenbatekoa 127,84 €/ha da eta gehienekoa 149,12 €/ha)

• Alokairua urtero berrikusiko da, Landaren eta Itsas Arrantzaren Kodearen R 411-9-9 artikuluaren arabera baserri alokatze Indize Nazionalaren aldakuntzaren proportzioan.

• Alokatze-kontratua bederatzi urterako izanen da 2026ko urtarrilaren 1ean hasiko da.

Herriko kontseiluak, Othatceguyren azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONETSI DU B sekzioko 0195 zk. duen lursaila, "Errepira bidea" deritzon lekuan eta 1ha 03a 90ca edukiera duena, Chrystèle DAGORRET andereari alokatzea, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzina, bederatzi urterako.

FINKATU DU Lehen kategoriarako (lur osasungarriak, goldagarriak, eguzki ertainekoak, egungo material arruntekin mekaniza daitezkeenak) urteko baserri-alokairua, prefekturako aginduko gutxienekoaren arabera: 127,84 €/ha

BAIMENA EMAN DIO auzapezari dagokion alokairu-kontratua eta erabaki honi dagokion edozein agiri izenpetzeko.

015 - C - Herri-larreak: herri-larreen alokatze kontratuak berritzea

DELIBERAZIOA:

Othatceguy hautetsiak batzarkideei azaldu die:

Kanboko Herria lursail baten jabea dela eta lursail hori baserri-alokairuan ezarriko duela baldintza hauetan:

Lur sailaren erreferentzia	Edukiera	Mota	Kategoria
B 731 zbk	2ha 73a 85ca	Larreak- *touya*	02

2016ko urriaren 3ko deliberoz, Herriko Kontseiluak lursail hori 2017ko urtarrilaren 1etik goiti bederatzi urtez alokatzeko baimena eman zuen (epea 2025eko abenduaren 31n bukatzen da), Pierre DARTHAYETTE jaunaren alde.

Azken honek, 2026ko urtarrilaren 1ean bere eskubideak kendu eta alokatze-kontratua bere semearen, Mattin DARTHAYETTEn izenean berritzea galdegin du.

Eskuratze hori erregularizatzeko, baserri-alokatze bat proposatzea komeni da. Hona hemen alokairu kontratu horren baldintzak:

• Aipaturiko lursailaren azalera dela-eta baserri-alokatze estatusaren menpe dago

• 2024ko irailaren 3ko 64-2024-09-03-00001 zenbakidun prefektura-aginduaren arabera, lursail horien sailkapena hau da:
  ▪ Mendialdean: 4. Zonaldea
  ▪ Lurzoruaren kalitatearen eta ustiatzeko aukeren arabera finkatzen da bere kategoria, 4. kategorian (larreak eta alhapideak)

• Landako eta Itsas Arrantzako Kodearen L 411-11 artikulua eta Frantziako Baserri-alokairu Indize Nazionalaren oinarria aplikatuz, 2025eko uztailaren 23ko agindu ministerialaren bidez, 2025erako 123.06 €-tako zenbatekoa da.

• Urteko baserri-alokairua prefeturaren aginduz urtero ezartzen diren gutxienekoen eta gehienekoen artean ezartzen da (4. kategoriarako, « larreak eta alhapideak », gutxienez 50,06 €/ha eta gehienez 74,60 €/ha)

• Baserri-alokairua urtero berrikusiko da, Landaren eta Itsas Arrantzaren Kodearen R 411-9-9 artikuluaren arabera baserri-alokairu Indize Nazionalaren aldakuntzaren proportzioan

Herriko Kontseiluak, Othatceguy anderearen azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONETSI DU B sekzioko 731 zk. duen lursaila, "Paskaleku" deritzon lekuan eta 2ha 73a 85ca edukiera duena, Mattin DARTHAYETTE jaunari alokatzea, 2026ko urtarrilaren 1etik aitzina, bederatzi urterako.

FINKATU DU 4. kategoriarako (larreak eta alhapideak) urteko baserri-alokairua prefekturaren aginduan ezarria den gutxieneko zenbatekoan: 50,06 €/ha

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari baserri-alokairuak eta dosierra honi dagozkion izapide guztiak izenpetzeko.

PARTE HARTZEAK

Amaia Beyriek galdegin du, hiru deliberazio horiei dagokienez, aitzin bilkura bat antolatu denetz laborariekin.

Corinne Othatceguyk argitu du interesatuak diren nekazari guztiak alokairu-kontratuak berritzearekin ados zirela.

016 – Herriko oihana: Lurraren okupatze hitzarmena berritzea

DELIBERAZIOA:

Goytino axuantak oroitarazi du, 2021eko martxoaren 29ko deliberoz, Herriko Kontseiluak beherean aipatzen den lursaila artzain-erabilerarako artaldeak itzala ukan dezan ustiatzea onartu zuela, Jean-Pierre ETCHEVERRY jaunaren alde, Ttolotea Etxea - Erdalasco Larria- Adaburuen bidea KANBOn:

Lur sailaren erreferentzia	Edukiera	Mota	Kategoria
A 0173 zbk	2a 64ca	Oihana	02

2024ko azaroaren 26an, lurra erabiltzeko hitzarmenean 2025eko abenduaren 31ko epemugaren berri gutunez eman zitzaion Jean-Pierre ETCHEVERRY jaunari. Orduan azken honek baimen hori birbideratu nahi zuela jakinarazi zigun.

2025eko abuztuaren 1ean e-mailez, *ONF-ek, h*erri-basoaren kudeaketaz arduratzen denak, hitzarmena berritzearen aldeko iritzia eman zuen, lehen aipatutako deliberazioaren baldintza berberetan:

• Lursaila *ONF*-k kudeatzen duen baso eremuaren parte gelditzen da. Basogintzako araubidean sartzen da, Basogintzako Kodearen L211-1 artikuluaren eta hurrengoen arabera;
• Erabilitako azalera 2 a eta 64 ca bitartekoa da (264 m2) lursailaren oinarri erabilgarri orokorrean
• Lursailera sarbide librea utzi behar da, itxitura ez da oztopo edo eragozpen izan behar baso-hitzarmenaren beharretarako;
• Lur honen erabilera artaldearen itzalerako da;
• Ihizirako eskubidea formalki debekatua da;
• Eskuratzea urteko 24.21 eurotan finkatu da
• Alokairua urtero berrikusiko da, Landaren eta Itsas Arrantzaren Kodearen R 411-9-9 artikuluaren arabera Baserri-alokairu Indize Nazionalaren aldakuntzaren proportzioan;
• Lursailaren okupazioa bederatzi urterako onartzen da.

Herriko Kontseiluak, Goytinoren azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONETSI DU herri-basoan kokatua den 264 m²-tako lursailaren okupazioa (A lursaila, 0173 zk.), "Erdalasco Larria" deritzon lekuan, Adaburuen bidea KANBOn, Jean Pierre ETCHEVERRY jaunari bederatzi (9) urterako, 2026ko urtarrilaren 1etik goiti;

FINKATU DU alokairuaren zenbatekoa, urtean 24,21 €-koa eta hitzarmenean ezarritako baldintzen arabera berrikus daitekeena

ONARTU DITU Jean-Pierre ETCHEVERRY jaunaren alde lursaila okupatzeko hitzarmenaren baldintzak;

BAIMENA EMAN DIO auzapezari erantsia den hitzarmena izenpetzeko eta dosierra honi dagokion edozein agiri izenpetzeko ere.

017 - Hilobi–columbariumak aurrekontu gehigarria: Lehen erabaki aldatzailea.

DELIBERAZIOA:

Aizpuru finantza axuantak oroitarazi du, 2025eko martxoaren 5eko deliberazioz, Herriko Kontseiluak Gisèle, Karine, Danièle VALCARCEL andereak gibelera joateko egina zuen eskaera baliozkotu zuela.

2025eko apirilaren 4an, auzapezak, herriaren izenean eta haren ordezkari gisa, 3430 zenbakidun gibelera egite akta baliozkotu zuen.

Gibelera egite horren ondorioz, VALCARCEL andereari zenbateko hauek itzuli behar zaizkio:

• 278,52 € herriko aurrekontu nagusitik, 2017ko apirilaren 20an eskuratutako kontzesioari dagokiona, 30 urteko iraupenarekin,

• 3.590 € hilobien aurrekontu erantsitik, 2017ko apirilaren 20an hilobi baten erosketari dagokiona, 6 tokikoa, G *sis* saila –5. lerroa– 11. zenbakia.

2025eko aurrekontu primitiboan idatziak diren kredituek (hilobien aurrekontu erantsiaren 65. kapituluan) ez dute itzulketa hori gauzatzea ahalbidetzen, zenbaketa gisa, 67. kapituluaren gaineko mandatuz, 673. artikuluan "baliogabetutako tituluak (aitzineko ekitaldiei buruzkoak)".

Herriko Kontseiluak, Aizpururen azalpenak entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU erabaki aldatzaile hau:

• 2.992 €-tako murrizketa 011. kapituluko 6052. artikuluan ("Materialen, ekipamenduen erosketak eta obrak")
• Zenbateko berdineko gehikuntza (2.992 €) 67. kapituluaren 673. artikuluan, "baliogabetutako tituluak (aitzineko ekitaldiei buruzkoak)".

018 – Langileak: aprendizen harrera moldeak

DELIBERAZIOA:

Auzapezak azaldu du:

Ikusirik Funtzio Publikoaren Kode Orokorra eta bereziki L 424-1 artikulua, aprendizgoari buruzkoa,

Ikusirik Lan Kodea eta bereziki L 6211-1 eta hurrengo artikuluak, R 6223-22 eta hurrengoak, D 6271-1 eta D 6271-3 artikuluak,

Ikusirik 2009-1437 zenbakidun legea, 2009ko azaroaren 24koa, Bizi Osoko Orientazio eta Lanbide Heziketari buruzkoa,

Ikusirik 2020ko maiatzaren 5eko 2020-530 zenbakidun dekretua, langile elbarrituak aprendizgo kontratu bat bukaeran epe mugatu batez funtzio publikoko gorputz edo lanbide batean derrigorrez tituludun egiteko modalitateak finkatzen dituena,

Ikusirik 2022ko otsailaren 18ko 2022-280 zenbakidun dekretua, lurralde-erakundeek eta erakunde publikoek enplegatutako aprendizen formakuntzaz arduratzen diren zentroei prestakuntza-gastuak ordaintzeko modalitateak finkatzen dituena, tokiko Funtzio publikoaren zentro nazionalari atxikia,

Ikusirik 2005eko otsailaren 11ko 2005-102 zenbakidun legea, elbarritasun bat duten pertsonen eskubide eta aukera berdintasunari, parte-hartzeari eta herritartasunari buruzkoa,

Ikusirik 2006ko maiatzaren 3ko 2006-501 zenbakidun dekretua, elbarritasunak dituzten pertsonak administrazio publikoan sartzeko Funtsari buruzkoa,

Ikusita Lurraldeko Gizarte Batzordeak 2025/05/06an eman duen aldeko iritzia, kolektibitateak aprendizak hartzeko eta prestatzeko baldintzei buruzkoa.

Aprendizgoari esker, 16 eta 29 urte bitarteko pertsonek (elbarritasun bat duten langileentzat adin mugarik gabe) espezialitate batean ezagutza teorikoak eskuratzen dituzte eta kolektibitate publiko batean ezagutza horiek aplikatzen dituzte.

Lan kodearen L 6222-1 eta R 6222-1-1 zenbakidun artikuluek eta Hezkuntza Kodearen L 337-3-1 zenbakidun artikuluak 16 urteko adin-mugarainoko salbuespenak finkatzen dituzte, urte zibilaren bukaeran 15 urte dituzten gazteek aprendizgo-kontratu bat ukaiteko, zeinak, ikasle estatusdunak diren lizeo profesional edo Aprendizen Formakuntza Zentro batean izena eman dezaketenak bi baldintza hauekin:
• Kolegioan eskolaldia bukatua izatea;
• Lanbide Ziurtagirien Estatu frantseseko aurkibidean (*RNCP)* erregistratutako helburu profesionaleko diploma edo titulu bat lortzeko formakuntza hastea.

Aldizkako formakuntza hori diploma edo titulu bat lortzeko da.

Dispositibo hori gazte edo langile elbarrituentzat interesgarria da, laneratzeko modu iraunkorra proposatzen dielako, kualifikazio-maila eta esperientzia egokitua lortuz.

Aldi berean, formakuntza kolektibitate publikoarentzat aukera bat da bere premietara egokituak diren gaitasuna garatzeko eta gazteen enplegua laguntzeko zerbitzu publikoaren xedeari erantzuteko.

Kanboko Herriak formakuntza horiek erabiltzea erabaki dezake. Desmartxa horretarako herriko langileen artean aprendiz-erakasle bat izendatu behar da. Haren lana, aprendizak lortu nahi duen kualifikazioari edo hark prestatutako titulu edo diplomari dagozkion gaitasunak eskuratzen laguntzea izanen da. Erakasleak behar den denbora izanen du eginkizun hori betetzeko, aprendiza laguntzeko eta Aprendizen Formakuntza Zentroarekin (AFoZ) harremanetan izateko.

Aprendizak lansari bat ukanen du, lan-kodearen D 6222-26 artikuluek eta hurrengoek finkatutako SMICaren ehunekotan zehaztutakoa. Ordainsaria aldatzen da onuradunaren adinaren eta prestakuntza-zikloan duen aitzinapenaren arabera.

Aprendizen nagusiak ez ditu enplegatzaile karga gehienak ordaindu behar.

2022ko urtarrilaren 1etik, *CNFPT-a*k enplegatzaile publikoek hartutako aprendizen formakuntza-gastuen ordainketan parte hartzen du. Horretarako Aprendizen Prestakuntza Zentroei (AFoZ) formakuntzaren gastuaren parte bat ordainduz, CNFPT-aren irizpideen arabera.

Lurraldeko Gizarte Batzordearen iritziarekin bat eginez, Herriko Kontseiluari dagokio aprendizgo kontratua erabiltzeari buruzko erabakia.

Herriko Kontseiluak auzapezaren azalpena entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ERABAKI DU aprendizgo kontratua baliatzea,

ERABAKI DU 2025eko irailaren 1etik goiti urtean gehienez bi aprendizgo-kontratu egitea,

BAIMENA EMAN DIO auzapezari kontratatu horiekin zerikusia duen edozein agiri izenpetzeko, eta, bereziki aprendizgo kontratuak eta Aprendizen Formakuntza Zentroekin izenpetutako hitzarmenak izenpetzeko.

PARTE-HARTZEAK

Nathalie Aïçaguerrek galdegin du aprendizgo kontratu horiek edozein sektoretan egin daitezken, berdeguneen edo idazkaritzaren sektoreetan.

Auzapezak argitu du aprendizgo kontratuak egiteko sektoreak beharren arabera zehazten direla eta Lurralde Funtzio Publikoaren Zentro Nazionalak (CNFPT) atxikitzen dituela. Zerbitzuen zuzendari nagusiak informazioa berretsi du, eta gaineratu du CNFPT-ak "krisian" dauden lanbideak zerrendatu dituela, baina, hala ere, zerrendan bilduak direla kolektibitateko lanbideen kopuru handi bat eta beraz, zerrendak ez duela murrizketa esanguratsurik ekartzen.

Nathalie Aïçaguerrek galdegin du nola trebatzen diren agenteak aprendizen harrera egiteko. Ikastun langile eta aprendizak hartzea baloratu du, baina horrek inbertsio handia galdegiten duela nabarmendu du, gero eta arazo handiagoa dela.

Auzapezak uste du Arnaga Museoa nahiko egitura sendoa dela eta aprendiz baten tutore-lanak egin ditzakeen arduradun eskudun bat duela.

Philippe Bacardatzek galdegin du zer diploma eta zer maila prestatzen duen aprendizak.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak argitu du aprendizak laborantza lizeoan ikasten duela, bere ustez BTS bat prestatzen ari dela eta beharrezkoa balitz informazioa berretsiko lukeela.

019 – Langileak: jatetxe-txartel esleipena – arau aldaketa

DELIBERAZIOA:

Auzapezak azaldu du:

2016ko ekainaren 6ko deliberoz, Herriko Kontseiluak onartu zuen jatetxe-txartelak eskuragarri ezartzea. Agente bakoitzeko urteko 100 jatetxe-txartel, gehienez 6 €-tako prezioan eta herriak prezioaren % 60a bere gain harturik. Hori da, txartel bakoitzeko 2,40 € agentearen kontura utzirik.

2024ko apirilaren 17ko eta 2025eko maiatzaren 6ko bilkuretan, Lurraldeko Gizarte Batzordeko (*CST*) kideek urteko prezio finkoaren berrikusketa gorantza egin dute, gehienezko 100 txartel kopurutik 180ra pasatuz. Egin duten esleipen-araudiaren eguneratzea eranskinean da.

Esleipen-araudi horretan, besteak beste, esleipen horren onuradunak nortzuk diren zehaztu da, baita esleipen-baldintzak agente bakoitzaren lanaldiaren eta lan-egunen arabera ere.

2026ko urtarrilaren 1etik goiti ordainketa-txartel izendun baten bidez derrigorrez emanen diren jatetxe-txartelen forma araudi honetan agertzen da.

Herriko Kontseiluak, auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu eta gero, aho batez:

ERABAKI DU jatetxe-txartelen sistema aldatzea, eranskinean datorren esleipen araudiaren arabera

BAIMENA EMAN DIO auzapezari gai horrekin lotua den edozein dokumentu izenpetzeko

ONARTU DU auzapezaren proposamena bere osotasunean.

PARTE-HARTZEAK

Nathalie Aïçaguerrek galdegin du nola birkargatu behar den jatetxe-txartelaren ordainketa-txartel izenduna, sistema horren funtzionamendua ez duela ezagutzen adierazi du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak azaldu du, Giza Baliabideen zerbitzuak jatetxe-txartelaren ordainketa-txartel izenduna automatikoki kargatuko duela hilabetero. Sistema desmaterializatuak kudeaketa praktikoagoa ahalbidetuko duela, lan egun bakoitzeko zuzenean sortuko dira txartelak. Hornidura informatikoki eginen da sarearen eta hornitzailearekin loturaren bidez, kreditua zuzenean agente bakoitzaren txartel indibidualean sartuko da.
Hala ere, sistemaren muga batzuk zehazten ditu: txartela ezin da erabili eguneko 25 € baino gehiagorako, ez du balio larunbat eta igandeetan, paper formatuko txartelek ez bezala.
Azkenik, adierazi du urtarrilaren 1erako aurreikusia den sistemaren desmaterializazioa CSTko kideekin adostasunez baliozkotu dela eta aitzinetik jakinarazi zaiela.

020 – HebHes Txakurrak: 2024 urteko jardueren txostenaren aurkezpena

DELIBERAZIOA:

Barbier hautetsiak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die, HebHes Txakurrak 2024 urteko jardueren txostena bidali duela posta elektronikoz, 2025eko ekainaren 25ean (ikus erantsitako dokumentua)

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren 5211-39 zenbakidun artikuluan ezarritakoarekin bat, “auzapezak Herriko Kontseiluari txosten hau jakinarazi dio jendaurreko bilkuran. Bertan entzunak dira herriak herriarteko lankidetzako erakunde publikoaren organo erabakitzailean dituen ordezkariak. »

HebHes-ean herriko ordezkariak egin duen azalpena entzun eta gero, Herriko Kontseiluak aho batez:

KONTUTAN HARTU DU HebHes Txakurrak-en 2024 urteko jardueraren txostena.

021 – Hirigune Elkargoa: 2024 urteko jarduera txostena

DELIBERAZIOA:

Aizpuru finantza axuantak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die, Euskal Herria Hirigune Elkargoak 2024ko jardueren txostena igorri duela eta posta elektronikoz jakinarazi diela batzarkide guztiei.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren 5211-39 zenbakidun artikuluan ezarritakoarekin bat, "auzapezak Herriko Kontseiluari txosten hau jakinarazi dio jendaurreko bilkuran. Bertan entzunak dira Herriak herriarteko lankidetzako erakunde publikoaren organo erabakitzailean dituen ordezkariak. ».

Hirigune Elkargoaren jarduera txostenak, 2024 urtekoak, erakunde horren jarduera eta proiektuak aurkezten ditu bere Lurralde Proiektuan zehaztutako ardatz estrategikoekin bat.

Herriko Kontseiluak, Aizpururen azalpena entzun eta gero, aho batez:

KONTUTAN HARTU DU Euskal Herria Hirigune Elkargoaren 2024ko jardueraren txostena.

• Informazioa.

Auzapezak adierazi du 22. puntua gero landuko dela.
Hala ere, Kanboko herriaren 2023ko Txosten Berezi Bakarra aurkeztu du, giza baliabideen kudeaketaren azterketa eta jarraipena egiteko tresna.
Hauek dira elementu nagusiak:
• 2023ko abenduaren 31n langile kopurua: 66 agente, ordaindutako lanaldi osoko 65,64 baliokideak.
• Estatusaren araberako banaketa: % 83 funtzionarioak, % 11 lan-kontratudun finkoak, % 6 lan-kontratudun ez-finkoak.
• Lagundutako kontraturik ez, bitartekakorik ez, Kudeaketa Zentroko ordezko agenterik ez.
• Kategorien araberako banaketa: %8 A kategoria, %18 B kategoria, %64 C kategoria.
• Generoaren araberako banaketa:
- Funtzionarioak: % 56 emazteak, % 44 gizonak
- Kontratudunak: % 62 emazteak, % 38 gizonak
- Oro har, emazte gehiago dira enplegatuak, batez ere lanaldi partzialekoak (emazteen % 14 eta gizonen % 3).
• Sailen araberako banaketa: % 21 administratiboa, % 58 teknikoa, % 5 animazioa, % 10 kulturala, % 2 kirolekoa, % 3 mediko-soziala, % 2 polizia munizipala.
• Beste informazio batzuk: langileen bataz besteko adina: 47 urte.
Txosten horrek giza-baliabideen egoerari buruzko ikuspegi orokor eta objektiboa ematen du, eta enpleguei, lan baldintzei, formakuntzari eta bilakaeraren aurreikuspenei buruzko gidaritza-tresna da.

Auzapezak adierazi du txostena eskuragarria izanen dela eta eragozpenik gabe kontsultatu daitekeela.

Philippe Bacardatzek galdegin du GEUZ-eko langileak txostenean agertzen direnetz.

Auzapezak ezetz erantzun dio, baina GEUZ-erako txosten bat eginen dela aipatu du, eperik zehaztu gabe.

Amaia Beyriek galdegin du turnover-ari buruzko informazioak badiren, turnover-a aldatzen ari den jakiteko.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak adierazi du 2023an 12 langile finko etorri direla eta 10 langile finko joan direla. Joateak horrela banatuak dira: % 30 erretreta, % 30 dimisioa, % 30 geldialdian emana, % 10 ordezko kontratua bukatzea.

022 – 2026ko martxoko herriko hauteskundeak pasatu arte Marienian eta Usamendian proiektuen eraikuntzaren hasiera baztertzeko mozioa.

DELIBERAZIOA:

Aïçaguerre hautetsiak azaldu du:

Kontutan harturik Kanbo eta inguruko biztanleen artean Marienia eta Usamendia izenez ezagunak diren bi higiezin-proiektu garrantzitsuen kontrako mugimendu zabala dagoela, batez ere laborarien ordezkariek eta ingurumena babesteko elkarteen partetik;

Kontutan harturik aspalditik hasiak diren oposizio horiek, proiektu horien ingurumen, gizarte eta lurralde sostengarritasunari dagokionez ezinegon sakona adierazten dutela ;

Kontutan harturik proiektu horiei dagozkien obra-baimenak auzibidean direla beti, jurisdikzio eskudunen aitzinean, eta beraz, proiektu horien legezkotasuna ez dela behin betiko finkatua;

Kontutan harturik protesta adierazpen ezberdinek eta eragin dituzten erantzun instituzionalek krispazio giroa elikatzen lagundu dutela, baita tentsio gero eta handiagoa ere;

Kontutan harturik 2026ko martxoan iraganen diren herriko hauteskundeak, zortzi hilabete baino gutiagoko epean. Hauteskunde horiek Kanboko hautesleek bi egitasmo horiek burutzeko edo bertan behera uzteko iritzia argi eta garbi eman dezaten aukera demokratiko nagusi bat izanen dira;

Kontutan harturik, helegite-prozedurek eta protesta-mugimenduek nabarmen gibelatu dutela obren hastapena eta larrialdiaren kontzeptua ez dela hain premiazkoa hauteskunde-epemuga erabakigarri batetik hilabete gutitara;

ESKAERA

Proiektuen oinarriari buruzko posiziorik hartzeko asmorik gabe, baina lasaitasunez eta datorren prozesu demokratikoa errespetatzeko asmoz,

Kanboko Herriko Kontseiluak Marienia eta Usamendia proiektuen eramaile diren **Bouygues Inmobilier** eta **IN'SITOM** promotoreei 2026ko martxoko herriko hauteskundeak iragan arte proiektu horiei dagokien obra-hastapena bertan behera uzteko galdegiten die.

Herriko Kontseiluak adierazpen librea eta datorren herriko bozketaren bidez herri burujabetza sustatzeko duen nahia eskaera horren oinarrian dira.

Herriko Kontseiluak, Aïçaguerre hautetsiaren azalpena entzun eta isilpeko bozketa egin eta gero, adierazitako bozken gehiengoz:

<u>UKATU DU</u>, 2026ko martxoko herriko hauteskundeak iragan arte **Marienia** eta **Usamendia** etxe proiektuen hastapena bertan behera uzteari buruzko mozioa.

Aurkako bozkak: 19
Aldeko bozkak: 10

Auzapezak, hamar hautetsik LKKO-ren L2121-10 zenbakidun artikuluaren arabera gai-zerrendan puntu bat sartzeko eskaera aurkeztu dutela adierazi du.
Marienia eta Usamendia proiektuen hastapena 2026ko martxoko herri-hauteskundeetara arte bertan behera uzteko mozio bati buruzkoa da puntu hori.
Eskaera abuztuaren 14an, 16:00etan, Peio Etxelekuk aurkeztu zuela zehaztu du eta izenpetzaileak ondoko hauek direla:

• Nahi Dugun Herria oposizioko zazpi kideak
• Gehiengotik erretiratu diren bi hautetsiak (Peio Etxeleku eta Jean-François Lacosta)
• Maria Aristizabal.

Hautetsien herenak baino gehiagok egin duenez eskaera (29tik 10ek), azken hau gai-zerrendan sartu da.
Mozioak, hitzez hitz, dio: " Herritarrek datozen bozketan iritzia eman dezaten obrak hasteko etenaldi bat galdegin behar zaie promotoreei, lasaitasuna lortzeko eta prozesu demokratikoa errespetatzeko asmoarekin. »
Ondotik, auzapezak izenpetzaileei mozioa irakur dezaten galdegin die.

Nathalie Aïçaguerrek mozioa irakurri du.

Auzapezak eztabaida hasi du eta hautetsiei hitza luzatu die.

Jean-François Lacostak hitz batzuk irakurri ditu:

"Mozio honen kontua ez da aipatutako bi proiektuen funtsari buruz edo gaur egun gure herrian indarrean dagoen etxebizitzen ekoizpen-politikari buruz iritzia ematea.

Mozio honek ez du izaera betearazlerik izanen eta onartua balitz, herriko hautetsien gehiengoak promotoreei eta Kanboko biztanleei luzatu nahi dien mezua zabaltzea da bere bokazioa. Testuinguru biziki berezian uztartzen da:

1. Bi etxe-proiektu horiei buruzko errekurtso juridikoak aurkeztu dira, eta ez dira oraindik osoki burutu.
2. Hastapeneko egutegiarekin konparatuz, proiektuen gauzatzea beranta handiarekin aplikatzen ari da eta, beraz, badirudi orain ez dela guztiz premiazkoa.
3. Hori dela-eta, herrian gobernantza aldatzeko aukeraren aitzinean, promotore horiek presaka aritzeko eta proiektu horiek gauzatzea lehen bai lehen abiatu nahi izateko tentazioa ukan lezakete.

Orain arte, bi proiektu hauek sortu dituzten kontrako mobilizazio biziki handiak ikusirik, lanak hasteak protesta ekintzetan eskalada eragingo ote duen pentsa daiteke azkarki.

Protesta horiek ziklo suntsitzaile batean sar gaitzakete: errepresio-erreakzioa ziklo baten arriskua bada.

Erabat saihestu behar dela iruditzen zaigu, are gehiago hauteskunde garaian gaudenean.

Badakigu hauteskundeetan kanboarren aitzinean aurkeztuko diren zerrendek bi proiektu horiei buruzko ikuspegi desberdinak proposatuko dituztela. Ondorioz, datorren hauteskunde-epea kanboarrek etxebizitzen urbanizazio eta produkzio-politikari dagokionez nahi dutena jakiteko bitarteko bikaina da.

Mozio honek, funtsean dio: egungo testuinguruan, nahiago dugu denbora hartu eta klima barea sustatu kanboarrek askatasun eta lasaitasun osoz adierazteko aukera ukan dezaten.

Gure erabakia hurbiletik behatua izanen da. Gure ardurak banaka, kontzientzian, hartzeko hautatuak izan gara.

Mozio hori onartuz gero, litekeena da promotoreek denbora hartzea lanak datozen herriko hauteskundeak arte ez hasteko. Izan ere, mezu biziki indartsua litzateke gure aldetik.

Batzarkideok, bi hautu dituzue:

1. Aurreranzko ihesarena mozio hau ezetsiz, promotoreei txeke xuri bat ematea eta eskuak garbitzea.
2. Ausardiarena eta kanboarren etorkizuneko hautuaren errespetu demokratikoarena, egoera lasaitu dezagun, eztabaidaren denbora har dezagun eta gure herritarrek beren herriarentzat zer nahi duten ikusi arte goita dezagun erranez. Mila esker. »

Auzapezak galdegin du beste hautetsi batek hitza hartu nahi ote duen. Beste hitzartzerik ez dela ohartarazten du.

Amaia Beyriek, Nahi Dugun Herriaren izenean, bozketa isilpean egiteko galdegin du.

Auzapezak oroitarazi du, araudiaren arabera, bozka sekretua emateko, gutienez bertaratutako hautetsien herenak galdegin behar duela (21etik 7k).
Galdera formala ez da muga horretara iristen, baina, hala ere, bozketa isilpean egitea onartu du.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak batzarkideak isilpeko bozketa egiteko deitu ditu.

Auzapezak Didier Irastorza boz-kontatzaile gisa proposatu du.

<u>Bozketaren emaitza</u>:
Gutun-azal kopurua..... 29
Bozkak..... 29
Aldeko bozkak..... 10
Kontrako bozkak..... 19

Ondorioz, auzapezak mozioa ezetsi dela adierazi du.

Gai-zerrenda agortuta, auzapezak bilkura bukatutzat eman du 21:25ean.

Amaia BEYRIE
Bilkura-idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko auzapeza